

# Tomatearen zapela

TOMATEAK (*Lycopersicon esculentum*) adina kontu sortzen duen lagunik ez dugu baratzean. Ameriketatik ekarria, Europako lurralde bero eta lehorretan hedatu zen eta hango jendearen migrazioarekin pixkanaka zabaldu. Baita guregan iritsi ere. Euskaldunek errezelo gorritz hartzen zuten kanpotik etorritakoek gatz ttantta bat bota eta, raka-raka, koskaka jaten zuten fruitu bigun urtsua. Eginda bai, saltsetan erraz etxekotu zen, baina gordinik gutxi jaten zuten. Gure etxean, amonak mordo egiten zuen baratzean, baita saldu ere leka, piper eta urazekin batera, baina aitonak zahartu eta gero ikasi zuen gordinik jaten. Geuk ere, umetan, gordinik azukrea botata jan ohi genuen... Gero-ora ikasitakoa da olio-ozpinetakoa.

Tomatea jaten ikastea ederki kostatu zaigu, baina orain amorratuak gara. Tomatea gordinik jaten ez duen oso lagun gutxi topatuko duzu. Eta makurrago dena, urte guztian nahi dugu. Euskal Herri hezea, ordea, ez da tomate tokia. Tomate urtea mirariaren hurrengo da. Tomateak gauza bakarra eskatzen du: bero lehorra. Eta hori da hemen mirari! Ia-ia Otxandio pikoaren parekoa da beheko aldeko lurretako tomatea.

Oraintxe da tomatea lur heze horietan aldatzeko sasoa. Hona tomatea izan nahi duenarentzat aholku batzuk. Bertan urte asko



JAKOBA ERREKONDO

daramatzen aldaera edo klasea aukeratu: Narbartekoa, Igeldokoa, Aretxabaletakoa, Tuterakoa, Zarauzkkoa, Erandiokoa, Murchantekoa... Toki beroena aukeratu, ahal baduzu hegora begira dagoen horma baten kontra. Landare bate-tik bestera tarte handia utzi, eguzkiak landare osoa berotu eta lehortu behar du, baita lurra ere. Airea erraz mugitu dadila, hezetasuna eraman dezan. Aldatzerakoan lur-tontor bat eraiki eta gainera muturrean aldatu. Zuloan asun (*Urtica dioica*) hosto edo zarbak jarri, lur pixka batekin estali eta gainera aldatu. Sakon sartu, zurtoinetik sustriak emateko joera handia du, eta horrek lagundu besterik ez du

egiten. Haren tartean tajeteak (*Tagetes patula*), ilenak (*Calendula officinalis*) eta albahakak (*Ocimum basilicum*) jarri. Itsasteko ureztatzeko, egun batzuez asuna eduki duen ura erabili. Landareari zauririk ez egin, juxtu-juxtu kimatu, baina azpiko hostoak ez kendu; zaurietatik sartzen dira gaitzak. Egun beltzak badatoz eta gorrina eta halako gaitzak agertzeko arriskua bada tratamenduan salda bordelesa, sufrea, azeribuztan-ura eta esnea nahastuta eman. Eta ihintzaren hezetasun kaltegarria kentzeko arbatzean jarri dizkiogun makilatik makilara zapela lana egingo duen plastiko edo oihal bat jarri. Goia estalia, alboak libre. ■

# %31

**Toki beroan** bizi al zara? Udan aire egokitua erabiltzen al duzu? Etxeari hegoaldean eta mendebaldean zuhaitzak jartzeak zure argindar gastua murrizten duela jakin ezazu. Kalifornia errean egin duten ikerketa batek argi azaldu du: %31 gutxiago gastatuko duzu. Euskal Herri berorako aholkua: emaitza hau lortzeko azkarrena platanoa omen da, *Platanus x hispanica*. ■



- Lorezaintza proiektuak
- Mantentze zerbitzua
- Landare iraunkorren erabilpena eta salmenta:
- Baratzeko landare ekologikoak
- Ezagutu eta aukera ezazu Urbina Garden-en.
- Legutito ☎ 945 40 34 23



☎ 609 42 45 47 · lorelan@euskalnet.net